# Hizkuntza gutxiagotuen biziberritzea eta garapen iraunkorra



## 16.Ira - 17.Ira

**Kod. G09-20**

**Edizioa**
2020

**Jaduera mota**
Ikastaroa

**Data**
16.Ira - 17.Ira

**Kokalekua**
Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**
Euskara

**Balio akademikoa**
20 ordu

**ZUZENDARITZA**

**Ines M. Garcia Azkoaga**, Euskal Herriko Unibertsitatea

## Antolakuntza Batzordea

Fundación BBVA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

# Azalpena

**Uda Ikastaro hau presentziala da. Baina nahi izanez gero, online bidez nonnahitik zuzenean jarraitzeko eta parte hartzeko aukera egongo da: Horrela egitea nahiago bazenu, mesedez sakatu ONLINE gainean zuzeneko online ikastaroaren fitxara sartzeko**

Nazio Batuen 2030 Agendan ez da lotzen garapen iraunkorra hizkuntza eta kultura aniztasunarekin, are gutxiago hizkuntza gutxiagotuekin. Aldiz, euskaldunok lotura hori eraikitzan ari gara euskararen biziberritzea eta giartearen garapena aldi berean landuta.  Hizkuntzaren garapen-indarra ikus daiteke beste zenbait herrialde edo hizkuntza-komunitateetan ere, adibidez, Kolonbiako nasatarren artean.

Erronka horri buruz jarduteko, nazioarteko hainbat adituren gogoetak ekarriko ditugu, horrela, gaiari buruzko lanak biltzen dituen liburu baten aurkezpenaz gain, Euskal Herriko, Latinoamerikako eta Afrikako (Kameruneko) adibideak aurkeztuko dira ikastaroan.

## Helburuak

Garapen iraunkorrerako lankidetzaren eta hizkuntza kooperazioaren arteko lotura azaltzea eta haien arteko harremanaren gaineko ezagutza zabaltzea.

Hizkuntzen biziberritze prozesuetan hain ezagunak ez diren ezaugarrietan sakontzea.

Hizkuntza gutxiagotuen garapen-balioa ezagutaraztea.

Euskal Herriko eta munduko hizkuntza gutxiagotuen (eta herrien) arteko elkartasun sareak ezagutaraztea eta berriak sortzea.

Hizkuntza gutxiagotuan oinarritutako hezkuntza eleaniztunen garapen-balioen ezagutzan sakontzea.

Hizkuntza aniztasunaren eta hizkuntza gutxiagotuen aldeko ezagutzan sakontzea eta haiekiko sentiberatasuna indartzea.

## Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak

# Programa

## 2020-09-16

| | |
|---|---|
| 09:00 - 09:15 | Erregistroa eta dokumentazio-banaketa |
| 09:15 - 09:30 | *Jarduerararen zuzendaritzaren aurkezpena*<br>**Ines M. Garcia Azkoaga** UPV/EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra - Katedrako arduraduna |
| 09:30 - 10:30 | *“"Hizkuntza aniztasuna, hizkuntza gutxiratuen biziberritzea eta garapen iraunkorra" liburuaren inguruan“*<br>**Itziar Idiazabal Gorrotxategi** UPV/EHU - Ikertzailea |
| 10:30 - 11:00 | Geldiunea |
| 11:00 - 12:00 | *“Kameruneko hizkuntza aniztasunaren egoera (Hizlari honen partaidetza Zoom bidez izango da)“*<br>**Gabriel Delmon Djomeni** University of Dschang - Ikertzailea |
| 12:00 - 13:00 | *“ Euskararen biziberritzea eta giza garapen iraunkorra Euskadiko Autonomia Erkidegoan“*<br>**Patxi Baztarrika Galparsoro** Andoaingo Udala - Hizkuntza politika eta plangintzan aditua |
| 13:00 - 13:30 | Elkarrizketa |

## 2020-09-17

| | |
|---|---|
| 09:30 - 10:30 | *“Kameruneko hizkuntza batzuetako komunitateetan murgilduz eta garapena aztertuz (Hizlari honen partaidetza Zoom bidez izango da)“*<br>**Gabriel Delmon Djomeni** University of Dschang - Ikertzailea |
| 10:30 - 11:00 | Geldiunea |
| 11:00 - 12:00 | *“Nasa yuwe: hizkuntza biziberritzea eta garapena“*<br>**Ane Ortega Etcheverry** Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola - Irakasle-Ikertzailea |
| 12:00 - 13:00 | *“Hizkuntza lankidetza maya yukatekaren biziberritzean“* |

**Jon Sarasua Maritxalar** Garabide Elkartea

| | |
|---|---|
| 13:00 - 13:30 | Elkarrizketa |

# Zuzendariak



**Ines M. Garcia Azkoaga**

Euskal Herriko Unibertsitatea

---

Euskal Filologian doktorea eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakasle titularra. Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa sailean egiten dut lan eta Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika sailean ere aritu izan naiz. Nire ikerketa arloak hizkuntza gutxitua aintzat hartzen duen hezkuntza eleaniztuna du ikusmiran, bereziki hizkuntzen alderdi diskurtsibo eta testualen garapena oinarri hartuta. Horiek dira, hain zuzen, nire argitalpenetan jorratzen diren gai nagusiak. Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza Saileko lehendakaria izan naiz; egun, UPV/EHUko Munduko Hizkuntzen Ondarearen UNESCO Katedraren arduraduna naiz.

# Irakasleak



### Patxi Baztarrika Galparsoro

Andoaingo Udala

---

Hizkuntza politika eta plangintzan aditua. Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziatua UPV-EHUn. Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuaren arduraduna da gaur egun (1980az geroztik). Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde izan da zortzi urtez (2005-2009 eta 2012-2016). NPLD-ren presidente 2015-2017 urtealdian (Network to Promote Linguistic Diversity – Hizkuntza aniztasuna sustatzeko sare europarra). EAEko Euskararen Aholku Batzordeko kide hamabi urtez (2005-2017). Gipuzkoako Batzar Nagusietako kide (1990-1995), Gipuzkoako diputatu nagusiaren kabinete buru (1999-2003) eta Donostiako Udaleko zinegotzi (2003-2007). Gainera, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrako "Hizkuntza aniztasuna, hizkuntza gutxituak eta garapen iraunkorra" liburuko kapitulu baten egilea da.



### Gabriel Delmon Djomeni

University of Dschang, Assitant Lecturer in Linguistics
*(Dschang, Cameroon)*

---

Djomeni doktorea Hizkuntzalaritzako irakasle laguntzailea da Dschangeko Unibertsitatean, Afrikako Ikasketen eta Globalizazioaren Sailean. 2012an doktoretza lortu zuen Yaundé I Unibertsitatean (Kamerun). Bere ikerketak eta argitalpenak hizkuntza gutxituei eta biziberritzeari, ama-hizkuntzan oinarritutako hainbat hizkuntzatako hezkuntzari eta hizkuntzalaritzari buruzkoak dira. Halaber, Sadembouo irakaslearekin batera, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Munduko Hizkuntzaren Ondareari buruzko UNESCO Katedraren "hizkuntza-aniztasuna, hizkuntza gutxituak eta garapen jasangarria" liburuaren kapitulu baten egilea da.



**Itziar Idiazabal Gorrotxategi**

UPV/EHU

---

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak saileko katedraduna Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU); Genebako Unibertsitatean doktorea psikolinguistika alorrean. Bere ikerketak haur elebidunen hizkuntza jabekuntzaz, euskararen azterketa diskurtsiboaz, eta irakaskuntza elebidun nahiz eleanitzari buruzkoak dira. Irakasle konbidatua izan da Virginia University, Université de Genève, CEETUM (Université de Montreal), eta Universidad del Atlántico (Colombia)n, besteak beste. Euskalgintzan hainbat erakundetan parte hartzen du, eta Euskaltzain urgazlea da. UPV/EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra sortu zuen 2007 urtean eta bertako kide izaten jarraitzen du.



**Ane Ortega Etcheverry**

---

Ortegak Hispaniar Filologia ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean. Masterra Warwickeko Unibertsitatean egin zuen Itzulpengintzaren Ikasketetan, eta doktorea da Soziolinguistikan eta Hispaniar Ikasketetan Londreseko Unibertsitatean. Egun Begoñako Andra Mari Magisteritza Eskolako (BAM) irakasle titularra da, non Lehen Hezkuntzako graduan irakasten duen. Bere lan esperientzian azpimarratu daiteke gaztelania atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzan Bretania Handian, eta HUHEZIn, Mondragon Unibertsitatean. Bere irakaskuntza testuinguru elebidun/eleanitzetan hizkuntzaren didaktikan zentratzen da eta bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan. Ikerketari dagokionez, hizkuntza gutxituen soziolinguistikaren arloan eta testuinguru eleanitzetan hizkuntzaren irakaskuntzan zentratzen da. Ortegak ELEBILAB ikerketa taldeko eta UPV/EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrako kidea da.



## Jon Sarasua Maritxalar

Garabide elkartea. Huhezi fakultatea, irakaslea eta kulturgilea

Komunikazio Zientzietan Doktorea da. Kazetaritza eta Soziologia ikasketetan ibilia. Bertsolaritzaren munduan oso gazte hasi zen eta urte askotan bertsolari gisa aritu ondoren, 2000 urtean utzi zion bertsolaritza publikoari. Mondragon Unibertsitatean aritu da hogei urtez, arlo sozioekonomikoan eta kultura arloan. Herrigintzako hainbat alorretan taldeak sustatzen jardun du, Lanki, Garabide, Sorguneak eta Bagara bezalako egitasmoen sorreran. Autoeraketa, gizarte ekonomia eta hizkuntza arloak landu ditu egitasmo horietan, eta berauei lotutako nazioarteko zubiak. Hainbat liburu eta argitalpen egina da hizkuntza nahiz kultura arloan eta gai sozio-ekonomikoetan.
http://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/jon-sarasua

# Matrikula prezioak

| MATRIKULA | 2020-09-16 ARTE |
| --- | --- |
| OROKORRA | 77,00 EUR |
| MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA | 65,00 EUR |
| MATRIKULA EXENTZIOA | 20,00 EUR |
| ELKAR txarteldunak | 65,00 EUR |
| AEK euskaltegiko kide | 65,00 EUR |

# Kokalekua

## Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa